



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ELIZALDE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-06	19:00	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Jon Del Olmo, Josu Delgado, Olaia Lasa			
Herritarrak:	Euskaraz: 13		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 6		Gizonezkoak: 7	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 1	51-65 urte: 9	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da eta Covid-aren berezitasunak aipatu dira.
2020 urtea	Orain artekoaren balorazio bat egin da eta geratzen diren hilabeteetan zein gauza burutu nahi diren argitu da.
2021eko aurreikuspena	Datorren urterako aurrekontuen aurkezpena egin da. Zehaztu da inbertsioaren %10 horretatik ateratzen dela dirua mendiburu 14 eraikinerako, beraz, inbertsioetako diru kopuru handiena bertarako konprometituta dugu. Hala ere, aurrera begira (datorren urte amaierara begira) inbertsioen partida hori hasiera batean dirudiena baina handiagoa izatea espero da.
Auzoa	Elizaldeko hainbat proiektu erreparatu dira. Elorrondo kalean norabide bakarra oraindik ez dago ziurtatua, mugikortasun azterketa horrek erakutsiko digu zer den egokiena. Arraskuelarre kalea, aldiz, norantza bakarrekoa izango da laster, pintaketak egiten direnean. Mugikortasun azterketa egingo dela aipatu da eta hori herri guztian burutuko da, baina eragin handiena Elizalde auzoan izango du. Planaren ondorioak ongi aztertu beharko ditugu hurrengo pausoak zehazteko.

Arraskuelarre kalean dagoen autobus geltokian kroska handi xamarra dago eta adin batetik aurrerakoentzat ez dago batere eroso. Santusene-Elorrondo proiektuan sartuta dago geltoki hori egoki jartzea.

Erriberene inguruan parke bat dago haurrentzat, parke hori udalarena da. Euria egiten duela asko lokazten da, eremua asfaltatuta edota gomarekin jarriz gero erabilgarriago geratuko litzateke. Ikusiko da.

Herriko eserlekuak ez omen daude batere egoera onean, urtean behin garbitu eta pintatuz gero hobeto mantenduko litzake. Gauza txiki hauek eragin handia dute herrian. Herritarrak animatu dira horrelakoetan udaletxera hurbiltzeko abisatzera, edota teknologia berrien bidez jakinaraztea.

Albaitariaren inguruan espaloia oso egoera txarrean zegoen eta orain oso txukun geratu da. Gainontzekoa burutzeko dago, Leibarreneko parean zebra bideko kroska kendu. Erdiko isleta ere rebajatu beharra dago.

Mugikortasunaren inguruan, Tronpeotik bidegorrira dagoen bidez hitz egiten da, Zurkoko bidea. Bide hori berreskuratu beharko litzateke, izan ere, betiko bidea da eta gainera igotzeko tronpeokoa baino xamurragoa da.

Garai batean peajerik gabeko autopistaren eskaera mugimendu handia zegoen. Gaur egun herritik ateratzeko Arraguan (biribilgunean) ilara handiak sortzen dira. Udalak diputazioari eskatu beharko lioke autopista liberatzeko. Mugikortasun azterketarekin ondorio guzti horiek aztertu nahi dira, horietako bat ea autopista irekitzeak benetan arinduko ote duen Arraguako pilaketa. Karga handiko garraio asko ibiltzen da eta Lanbarrenetik autopistarako irteera zuzena izatea izango litzake soluzio on bat Udalaren ustez.

Anerreko zubiaren kontuarekin, udala Orsarekin negoziatzen saiatu zen bere garaian erdibana ordaintzeko, baina ez zuten negoziatu nahi izan. Orain udalak epaiketa irabazi du eta Orsak ordaindu behar du zubia. Ez dakigu Orsak errekurrituko duten ala ez.

Ibargaingo parkean ontzi gehiago jartzea komeni da, izan ere, asteburuetan batez ere gazteak bertan ibiltzen dira eta oso zikin geratzen da. Ontziak gainezka egoten dira.

Atez ateko sistemarekin lanean urte batzuk daramatzagu eta agian azterketa egin beharko litzateke hobekuntzak bermatzeko. Bestela, denborarekin estankatu egiten da gaia. Funtzionatzen duen sistema da, emaitza onak ematen

ditu, baina azken aldian jendearen aldetik zabarkeria gehiago nabaritzen da. Foko nagusia Talaiakoa zen, baina bertako erabilera ez zen behar bezalakoa eta hainbat saiakera ezberdin egin ondoren ixtea erabaki da. Jendea hondakinak zintzilikatzekoan jartzera motibatu behar dugu.

Gizarte eredu honekin nola landu eztabaidatu da, sentsibilizazio kanpaina bat egin behar da agian, baina horren eraginkortasuna ere eztabaidatu da eta beste mota bateko neurriak ere hartu beharko lirakeela. Janari prestatuak sortzen duen zabor guztia, herriko txutxeri dendatik hasita, erosketa guztiak plastiko poltsa batean ateratzen ditura. Hortik landu behar da.

Garbigunearen inguruan, ordutegiak eta egutegiak ez dute kointziditzen. Irekita egon behar duenean itxita topatu du behin baino gehiagotan herritar batek. San Markosekin hitz egin beharko da ongi eguneratzeko datu hauek, kudeaketa Sanmarkosek egiten baitu. Bertako kartelean ere ez da ongi ikusten.

Elizaren zartaduraren inguruan hitz egin da. Eremu hori aukeratu zenean obra hau egiteko, azterketa geoteknikoak egin ziren, normalean egiten direnak baina gehiago. Eliza honen egoera oso delikatu da, izan ere, gehiagotan ere mugitu izan da. Orain artesia duen leku berean orain 30 urte ere izan zen artesia. Izan ere, eliza lurraren gainean dago, ez dago arrokarik azpian, ondorioz lurraren mugimenduak eragin egiten dio. Landetxeko hormak ez du eragin elizaren mugimendua, baina badirudi horma hori egiteko sartutako "anklajeak" sortu dutela lurrean mugimendua. Elizan oraindik ere mugimendu txikiak badaude, baina geroz eta gutxiago, badirudi egonkortzen ari dela. Momentuz obra gelditzea erabaki da, geoteknikariak azterketak egiten dituzten bitartean. Bertan ateratako ondorioekin ikusiko da nola jarraitu behar den obrarekin. Mugimendua hasi zenean elizarekin harremanetan jarri zen udala. Orduan erabaki zen koroko eremua ixtea eta bestetik, organoa babeste aldera, desmuntatu egin da (hau aurreikusita zegoen lehendik ere egitea, baina aurreratu egin da). Izan liteke obrak gailentzearen bat izatea exekutatzeko modua aldatu beharko delako, baina ez da aurreikusten gailentze izugarririk. Aldameneko etxeen egoerari dagokionean, kalterik izanez gero udalean abisua pasa beharko litzateke. Bizilagun batek zalantza dauka nora jo, udalera edota obrako enpresarengana. Berarekin kontaktuan jartzekotan geratu da udala.

	<p>“Kaxkoan” aparkatzea geroz eta zailagoa dela aipatu da. Batez ere, ordu jakin batzuetan. Barianteko kotxeak kentzeak eragina izan du. Erdigunean bizi direnak batzuetan arazoa izaten dute aparkatzeko. Barianteko kotxeak kendu zirenean udala saiatu zen “kaxkoan” aparkaleku bat egiteko lekua bilatzen, baina ez dago lekurik eta horregatik egin zen Ormazabalenerako aparkalekua. Mahai gainean jarri da aparkaleku pribatua duen jendeak ere kalean uzten duela askotan.</p> <p>Arraskuelarre kalean “adokinak” mugitu eta puskatzen dira ibilgailuekin.</p> <p>Zoriondu udaletxeari bidegorriko seinaleztapenagatik.</p> <p>Saltoki aurreko zuhaitzak erortzear daude.</p> <p>Herritar batek galdetzen du aukerarik badagoen bidegorria Ventas-eraino iristeko. Jakinarazi da Gurutze elkartu nahi dela Elizalderekin. Proiektua egin beharra dago, zesio batzuk lortu behar baitira lehenago.</p> <p>Urkabebaitako hitzarmena sinatuta dago Jaurlaritzarekin, 14 etxebizitza alokairu sozialeko eta beste 26 alokairurako. Guk jarriko dugu eremua eta jaurlaritzak inbertitzen du. Covik 19 dela eta atzeratzen ari da. Legealdi honetan martxan hasi nahiko genuke. Kotxeentzako sarrera Mosako bidetik izango du.</p> <p>Auztegiko errebuelatuko anguleroa okupatuta dago, bi marrokiar bizi dira bertan. Ez daude baimenduta, baina ezin ditugu bertatik botu.</p>
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bilera zehar emandako azalpenak	8,50
bilera ongi gidatu da	8,58
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,09
Auzotar kopurua	4,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,50
Saioa probetxugarria izan al da?	8,27
Egunaren egokitasuna	8,67
Orduaren egokitasuna	8,50
nLekuaren egokitasuna	8,75